



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

PROTOKOLOAREN, PRENTSAREN ETA LAGUNTZA ZERBITZUEN ATALA
SECCIÓN DE PROTOCOLO, PRENSA Y SERVICIOS AUXILIARES

EUSKO LEGEBILTZARRAK ARAGOIKO GORTEETAKO LEHENDAKARIARI ETA KIDEEI HARRERA EGINGO DIE GAUR, OTSAILAREN 1A, 11:45EAN

Ganbera bi horietako organo nagusiek erakunde arteko bilera egingo dute.

Eusko Legebiltzarreko lehendakariak, Mahaiko kideekin batera, Aragoiko Legebiltzarreko ordezkariari harrera egingo die gaur, 11:45ean, Gasteizko Ganberako sarreran. Jarraian, harrera-ekitaldietako aretora igoko dira guztiak, eta hor **ARANTZA QUIROGAK eta FRANCISCO PINAK** laburki azalduko dituzte bisitaren helburuak. Bisitaren lehenengo zati horretan Legebiltzarreko bozeramaileak ere egongo dira. Bisitariak, Bozeramaileen Batzordearen aretoan izango den lan-bileraren ondoren, gure erakundearen egoitza ikusiko dute.

Aragoiko Gorteetako lehendakaria eta Mahaiko kideak antolamenduko eta legegintzako esperientziak azaltzera etorriko dira.

Bisita hori Eusko Legebiltzarra beste zenbait legebiltzar autonomikorekin egiten ari den trukeetako bat da. Eusko Legebiltzarreko lehendakariak eta Mahaiko kideek urriaren 14an Zaragozara, Aragoiko Gorteetara, egindako bisitaren ordaina da.

Aragoiko Ganberako lehendakaria, **Francisco Pina Cuenca**, Alderdi Sozialistako kidea da. Mahaiko bigarren lehendakariordea, Miguel Ángel Lafuente, Talde Popularrekoa da. Mahaiko beste bi ordezkariak idazkariak dira: María Herrero lehenengo idazkaria, Partido Aragonéseko kidea, eta Ana María Grande, Talde Popularrekoa.





E G I T A R A U A

ASTELEHENA, 2010EKO OTSAILAREN 1A

11:45EAN.- HARRERA, EUSKO LEgebILTZARREAN
- HITZALDIAK

- LAN BILERA

13:00ETAN.- PRENTSAURREKOA

OSOKO BILKUREN ARETORAKO BISITA

ORDEZKARIAK:

- LEHENDAKARIA, FRANCISCO PINA CUENCA JAUNA
- BIGARREN LEHENDAKARIORDEA, MIGUEL ÁNGEL LAFUENTE BELMONTE JAUNA
- LEHENENGO IDAZKARIA, MARÍA HERRERO HERRERO ANDREA
- BIGARREN IDAZKARIA, ANA MARÍA GRANDE OLIVA ANDREA





EL PRESIDENTE Y LOS MIEMBROS DE LAS CORTES DE ARAGÓN SERÁN RECIBIDOS EN EL PARLAMENTO VASCO ESTE LUNES, DÍA 1 DE FEBRERO, A LAS 11:45 HORAS

Los dos órganos rectores de las cámaras realizan un encuentro institucional

La presidenta del Parlamento Vasco, acompañada por los miembros de la Mesa, recibirá este lunes a las 11:45 horas, en el vestíbulo de la sede parlamentaria en Vitoria, a la delegación de la Asamblea aragonesa. Posteriormente subirán al salón de recepciones, donde **ARANTZA QUIROGA y FRANCISCO PINA** comunicarán con unas breves palabras los objetivos de la visita. Esta primera parte de la visita contará con la presencia de los portavoces parlamentarios. Después de mantener una reunión de trabajo en la sala de la Junta de Portavoces, visitarán la sede de la institución

El presidente y los miembros de la Mesa de las Cortes de Aragón mantendrán este encuentro con el objeto de intercambiar experiencias organizativas y legislativas.

La visita corresponde a la línea de intercambios que sigue el Parlamento Vasco con otros parlamentos autonómicos, y en este caso se trata de la devolución de la visita que el 14 de octubre del pasado año la presidenta y los miembros de la Mesa del Parlamento Vasco hicieron a la sede de las Cortes de Aragón en Zaragoza.

La Cámara aragonesa está presidida por el miembro del Partido Socialista **Francisco Pina Cuenca**. El vicepresidente segundo de la Mesa, Miguel Ángel Lafuente, es del Grupo Popular. La delegación de la Mesa se completa con sus dos secretarios: María Herrero, secretaria primera, del grupo parlamentario del Partido Aragonés, y Ana María Grande, del Grupo Popular.





P R O G R A M A

LUNES, DÍA 1 DE FEBRERO DE 2010

11:45H.- RECEPCIÓN EN EL PARLAMENTO VASCO
- DISCURSOS

- REUNIÓN DE TRABAJO

13:00H.- RUEDA DE PRENSA

- VISITA AL SALÓN DE PLENOS

COMPONENTES DE LA DELEGACIÓN:

- **PRESIDENTE**, EXCMO. SR. D. FRANCISCO PINA CUENCA
- **VICEPRESIDENTE SEGUNDO**, ILMO. SR. D. MIGUEL ÁNGEL LAFUENTE BELMONTE
- **SECRETARIA PRIMERA**, ILMA. SRA. D.º MARÍA HERRERO HERRERO
- **SECRETARIA SEGUNDA**, ILMA. SRA. D.º ANA MARÍA GRANDE OLIVA

